

Oinarrizko informazioa

Europar Batasuneko datuak babesteko araudi orokorrean aurreikusitakoari jarraikiz, jakinarazten dizugu zuk dokumentu honetan emandako datuak eta aurrerantzean emandakoak tratatuko dituztela, erantzukide gisa, Liberty Seguros, Compañía de Seguros y Reaseguros, SAK; Kutxabank, SAK; eta Kutxabank Aseguradora, Compañía de Seguros y Reaseguros, SAUK, azken horrek eta Liberty Segurosek sinatutako banaketa akordioaren esparruan, jarraian adierazita dagoen bezala.

1. LIBERTY SEGUROS, COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, SA

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa	
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> Aseguru aurrekontratuaren eta/edo kontratuaren harremana kudeatzea, horretarako beharrezko profilak egitea barne.
Legitimazioa (oinarri juridikoa)	<ul style="list-style-type: none"> Aseguruaren aurrekontratua eta/edo kontratua egikaritzea.
Datuak	<ul style="list-style-type: none"> Aseguruaren kontratua baino lehen eta polizan emandakoak eta/edo kontratuko harremanean sortutakoak (osasun datuak barne). Osasun datuak ez dira tratatuko merkataritza komunikazioak bidaltzeko. Hartzaileari buruzkoak eta kontratuari lotutako beste pertsona fisikoei buruzkoak (adibidez, aseguruak, onuradunak, kaltetutako hirugarrenak).
Jasotzaileak	<ul style="list-style-type: none"> Beste entitate aseguratzaile eta berraseguratzaile batzuk. Organismo publikoak edo pribatuak. Helburu estatistiko aktuarialak, ezbeharren likidaziokoak, iruzurra saihestekoak eta ez ordaintzeetako kaudimenekoak dituzten fitxategi komunak kudeatzen dituzten entitateak. Zerbitzu emaileak.
Nazioarteko transferentziak	<ul style="list-style-type: none"> Babes maila egokia duten herrialdeak. Estatu Batuak (babesa ez da EBekoaren baliokidea, baina bermeak hartzen ditu: klausula tipoak, arau korporatibo lotesleak, "Privacy Shield" eta/edo onartutako beste edozein mekanismo)

2. KUTXABANK SA eta KUTXABANK ASEGURADORA, COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, SAU

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa	
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> Bezeroei bermatzea kalitate goreneko zerbitzu bat, beren interesen babes handiagoa eta aseguru aurrekontratuko eta/edo kontratuko harremanetik eratorri daitekeen edozein gorabeheraren jarraipen hobea.
Legitimazioa (oinarri juridikoa)	<ul style="list-style-type: none"> Interes zilegia.
Datuak	<ul style="list-style-type: none"> Zuk aseguruaren kontratua baino lehen eta polizan emandakoak eta/edo kontratuko harremanean sortutakoak. Hartzaileari eta/edo hartzaile-aseguratuari buruzkoak.
Jasotzaileak	<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzu emaileek eduki ahal izango dute zure datuetarako sarbidea. Ez da egingo zure datuen nazioarteko transferentziarik. Ez da egingo zure datuen inongo lagapenik.

3. ERANTZUKIDEEI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIO OROKORRA

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa	
Eskubideak	Erabili ahal izango dituzu datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezabatzeko, horien aurka egiteko, horien tratamendua mugatzeko eta horiek mugitzeko eskubideak, informazio gehigarrian adierazitakoari jarraikiz.
Informazio gehigarria	Hemen ikus dezakezu datuen tratamenduari buruzko informazio gehigarri eta xehatua: www.kutxabank.com Irakurtzea gomendatzen dugu.

Informazio gehigarria eta xehatua

I. INFORMAZIO OROKORRA

Europar Batasuneko datuak babesteko araudi orokorrean aurreikusitakoari jarraikiz, jakinarazten dizugu eskatzailearen edo hartzailearen eta/edo aseguratuaren datu pertsonalak tratatuko dituztela, erantzukide gisa, LIBERTY SEGUROS, Compañía de Seguros y Reaseguros, SAK; Kutxabank, SAK; eta Kutxabank Aseguradora, Compañía de Seguros y Reaseguros, SAUK, azken horrek eta LIBERTY SEGUROS, Compañía de Seguros y Reaseguros, SAK sinatutako banaketa akordioaren esparruan.

Ez baduzu ematen eskatutako nahitaezko eta ezinbesteko informazioa, ezingo da garatu aurrekontratuko eta/edo kontratuko harremana zurekin.

1. Erantzukideen identifikazioa

- LIBERTY SEGUROS, Compañía de Seguros y Reaseguros, SA ("**Liberty Seguros**"), egoitza soziala Doce Estrellas Pasealekuko 4 zenbakian (28042, Madril), duena;
- Kutxabank, SA ("**Kutxabank**"), egoitza soziala On Diego Lopez Haroko Kale Nagusiko 30-32 zenbakietan duena (Bilbo, Bizkaia, Espainia); eta
- Kutxabank Aseguradora, Compañía de Seguros y Reaseguros, SAU ("**Kutxabank Aseguradora**"), egoitza soziala Euskadi plazako 5 zenbakian duena (Bilbo, Bizkaia, Espainia).

2. Interesdunaren eskubideak erabiltzea

Erantzukide bakoitzaren aurrean eta haren aurka datuen babesaren araudiaren esparruan dituzun eskubideak eragotzi gabe, erantzukideek interesdunarentzako harreman puntu komun gisa izendatu dute Liberty Seguros, eskubide horiek erabiltzea errazteko eta soiltzeko. Ondore horietarako, Liberty Seguros erantzukideen izenean arituko da. Eskubide horiek erabiltzeko helbide honetara idatzi ahal izango duzu: ejercicioderecho@libertyseguros.es.

3. Datuen Babesaren Ordezkarria

Datuen babesaren ordezkariekin harremanetan jarri ahal izango duzu helbide honetan: dpo@libertyseguros.es.

4. Zure datu pertsonalen tratamenduan dituzun eskubideak

Eskubidea duzu erantzukideei eskatzeko egiaztatu dezatela zure datuak tratatzen ari diren edo ez, eta, hala badagokio, datu pertsonaletara eta haien tratamenduari buruzko informazio jakin batera (helburuak, tratatutako datuen kategoriak eta hartzaileak, besteak beste) sartzekoa. Horrez gain, eskubidea duzu zehatzak ez diren datuak zuzentzeko eskatzeko, baita horiek ezeztatzeko ere, besteak beste, horiek ez direnean beharrezkoak jaso ziren helburuetarako. Egoera jakin batzuetan (adibidez, eskatzaileak datuen zehaztasuna aurkaratu badu, zehaztasuna egiaztatzen den bitartean), eskatu dezakezu zure datu pertsonalen tratamendua mugatzeko, eta horiek soilik erabiliko dira erreklamazioak egiteko edo horietaz defendatzeko. Halaber, datuak mugitzeko eskubidea ere erabili dezakezu, hau da, zure datuak formatu egituratu, erabilera komuneko eta irakurketa mekanikoko formatu batean jasotzeko eta tratamenduko beste arduradun bati bidaltzeko, jaso dituen arduradunak hori eragotzi gabe, ondore horietarako legez aurreikusitako kasuetan.

Eskubidea duzu edozein momentutan zure egoera pertsonalarekin lotutako arrazoiengatik datuen tratamenduaren aurka egiteko, tratamendua interes zilegian oinarrituta badago. Kasu horretan, tratamendua bertan behera utziko da, salbu eta frogatzen bada arrazoi zilegiak daudela datuak tratatzen jarraitzeko.

Zure eskubideak erabili ahal izango dituzu idatzi bat bidalita helbide honetara: ejercicioderechos@libertyseguros.es

Era berean, eskubidea izango duzu Datuen Babeserako Espainiako Agentzian erreklamazio bat aurkezteko, zure eskubideak bete ez badira.

5. Zure datu pertsonalak gordetzea

Liberty Segurosek, Kutxabankek eta Kutxabank Aseguradorak zure datuak gordeko dituzte zurekin kontratu harremana mantendu bitartean, baita harreman hori bukatzean ere, aplikagarriak diren zigor arauak, arau zibilek, fiskalek, administratiboek edo merkataritza arauak ezartzen duten iraingitze edo preskribatze epean. Gero, ezabatu egingo dira.

II. LIBERTY SEGUROS, COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, SA

1. Zure datu pertsonalak tratatzearen helburuak eta legitimazioa

Zure datu pertsonalak erabiliko dira honako helburu hauetarako, honako oinarri legitimatzaile hauekin:

- Aseguru aurrekontratuko eta/edo kontratuko harremana formalizatzeko, kudeatzeko eta egikaritzeko. Tratamendu horren oinarri legitimatzailea da aseguru aurrekontratua eta/edo kontratua egikaritzea;
 - (a) Horrez gain, osasunari buruzko datuak tratatzen badira, jakinarazten dizugu Liberty Segurosek osasun datuak ere kudeatzen dituen heinean, 20/2015 Legeak, uztailaren 14koak, entitate aseguratzaileen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoak, babestu egiten duela datu horiek tratatzea aseguru kontratua egikaritzeko beharrezkoa bada, eta osasun publikoko alorrean interes publikokoa bada;
- Zure eta Liberty Segurosen artean izandako telefono bidezko elkarrizketen grabaketak edo esku hartzeak egitea, gure zerbitzuen kalitatea kontrolatzeko eta deien segurtasuna bermatzeko gure interes zilegiaren ondorioz. Horrenbestez, kontuan izanda ezin duzula konfidentzialtasun/pribatutasunik espero Liberty Segurosekin dituzun komunikazioetan. Halaber, jakinarazten dizugu Liberty Segurosen interes zilegian oinarrituta, dei horiek frogatutako gisa erabili ahal izango direla edozein prozedura judizialan edo estrajudizialan;
- Profilak egitea, aseguru kontratuaren arriskua eta prima zehazteko beharrezkoak, helburu estatistiko eta aktuariarekin, bai kontratatu aurretik, bai kontratuaren indarraldian, inguruabar pertsonal edo oinarri tekniko aktuariarako aldatu badira. Horretarako, Liberty Segurosek fitxategi komunak kontsultatu ahal izango ditu, aseguru sektorearen jardunbide kodeak babestuta. Tratamendu horren oinarri legitimatzailea dira 20/2015 Legea, uztailaren 14koak, entitate aseguratzaileen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoa, eta aseguru kontratua egikaritzea;
- Fitxategi komunak kontsultatzea, aseguru sektorearen jardunbide kodeek babestuta, iruzurra saihesteko helburuarekin. Tratamendu horren oinarri legitimatzailea da 20/2015 Legeak, uztailaren 14koa, entitate aseguratzaileen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoa, eta Liberty Segurosen interes zilegia;
- Diruzko obligazioak ez betetzeari buruzko fitxategi komunak kontsultatzea, zure kaudimen ekonomikoa balioesteko helburuarekin, zure aseguruaren kontratuari lotutako arriskua kalkulatzeko, prima ezartzeko, eta, horrela, zure kontratua egikaritu ahal izateko gure legezko betebeharrak betez;
- Betetzea 50/1980 Legean, urriaren 8koan, Aseguru Kontratuei buruzkoan; 20/2015 Legean, uztailaren 14koa, Entitate Aseguratzaileen Antolamendu, Ikuskapen eta Kaudimenari buruzkoan; Aseguruaren Banaketari buruzko Zuzentarauan; 26/2006 Legean, uztailaren 17koan, Aseguru eta Berraseguru Pribatuen Bitartekaritza buruzkoan; eta entitate aseguratzaileei

- aplika dakizkiekeen beste araudian ezarritako betebeharrak. Adibidez: keak eta erreklamazioak kudeatzea, hornidura teknikoak ematea, polizak erregistratzea, ezbeharrak eta inbertsioak edo neurri eraginkorrak hartzea iruzurrezko jardunak prebenitzeko, identifikatzeko, detektatzeko, jakinarazteko eta konpontzeko;
- Berraseguratzeko eragiketetan. Haien oinarri legitimatzailea dira 50/1980 Legea, urriaren 8koa, Aseguru Kontratuei buruzkoa, eta 20/2015 Legea, uztailaren 14koa, entitate aseguratzaileen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoa, baita haren interes zilegia ere;
 - Ikerketa estatistiko-aktuarialak egitea, Liberty Segurosen interes zilegian oinarrituta; eta
 - Kalitate inkestak egitea, aseguru kontratuarekin lotutakoa, kontuan izanda Liberty Segurosek hura ondo egikaritzeko duen interes zilegia.

2. Datu pertsonalen kategoriak eta jatorria

Tratatuko diren datu pertsonalak (osasun datuak barne) izango dira aseguru aurrekontratuaren eta/edo kontratuaren esparruan zuri buruz jasotzen ditugunak eta eskura dauden beste iturri batzuetatik lortutakoak, baldin eta horiek jasotzea legeak baimentzen badu:

- Zuk emandako informazioari dagokionez, tratatu ditzakegu aseguru kontratua kontratatu aurretik emandako datuak (aurrekontua, aseguru eskatzea), polizan daudenak eta/edo kontratuko harremanak iraun bitartean sortutakoak;
- Beste iturri batzuetatik lortutako informazioari dagokionez, tratatuko dira fitxategi komunetatik lortutakoak, helburu estatistiko-aktuarialerako, ezbeharrak likidatzeko, iruzurra prebenitzeko eta ondare kaudimenaren eta kredituaren inguruko helburuetarako, aseguru sektorearen jardunbide kodeen babesean. Horrez gain, aseguru kontratua egikaritzean, datuak jaso ahal izango dira hirugarrenengandik, esaterako, abokatuengandik, perituengandik, konpainia aseguratzaileetatik, ospitaleetatik eta lantegietatik.

Tratatuko diren datuak izan daitezke hartzailearenak, baita aseguru kontratuarekin lotutako beste edozein pertsona fisikorenak ere (adibidez, aseguratuak, onuradunak edo kaltetutako hirugarrenak). Kasu horretan, deklaritzen duzu pertsona horiei alde aurretik jakinarazi diezula, behar bezala, beren datu pertsonalak tratatuko direla.

3. Zure datu pertsonalen hartzaileak

Zure datu pertsonalak komunikatu ahal izango zaizkie jarraian jasotako hartzaile kategoriei:

- Beste berraseguratzaile batzuk, berraseguratzea dela medio, kontuan izanda 50/1980 Legea, urriaren 8koa, Aseguru Kontratuei buruzkoa; 20/2015 Legea, uztailaren 14koa, entitate aseguratzaileen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoa; eta Liberty Segurosek duen interes zilegia;
- Ikertzaile pribatuak, segurtasun indarrak, epaileak eta epaimahaiak, iruzurrezko jardunbideak ikertu ditzaten. Tratamendua beharrezkoa da 20/2015 Legearen, uztailaren 14koaren, entitate aseguratzaileen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoaren 100. artikulua arabera, eta bereziki zaindu behar da Liberty Segurosek artikulua horretan xedatutakoa betetzeko duen lehentasunezko interes zilegia;
- Liberty Mutual Insurance Company, Liberty Mutual Group Incorporated, Liberty International Holdings Inc., Liberty Mutual Technologic Group, Inc. eta Liberty taldeko beste entitate batzuk, tratamenduaren arduradun gisa prozesu informatikoak eta aplikazioak zentralizatzen dituztenak;
- Tratamenduaren arduradunak, zerbitzu profesionalak (adibidez, kanpoko abokatuak; banaketa akordioak) eta datuak gordetzeko eta prozesatzeko zerbitzuak emateko, sarearen eta

informazioaren segurtasun zerbitzuak, bezeroarekiko harreman zerbitzuak eta hodeiko konputazio zerbitzuak emateko.

- Organismo publikoak eta pribatuak, merkataritza transakzioen ikerketak egiteko, oinarri legitimatzaile gisa hartuta ustelkeriaren eta iruzurraren aurkako borrokaren inguruko araudiak eta zehapen ekonomiko eta komertzialak betetzea;
- Fitxategi komunentzako kudeatzaileak, kaudimenaren inguruko helburuetarako prima ordaintzen ez bada, kontuan izanda Liberty Segurosen interes zilegia; eta
- Aseguru sektoreko bi fitxategi komun hauen entitate kudeatzaileak, kontuan izanda Liberty Segurosen interes zilegia, iruzurraren prebentziorako legezko gaikuntzak eta interes publikoarenak babestua, hurrenez hurren. Zehazki, 20/2015 Legearen, uztailaren 14koaren, entitate aseguratzaileen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoaren, 99.7 artikuluan jasotako legezko gaikuntzari jarraikiz, UNESPAk honako fitxategi hauek osatu ditu:

- (a) Autoen Seguruen Fitxategi Historikoa. Haren helburua da arriskuen tarifikazioa eta hautaketa. Fitxategia osatzen da entitate aseguratzaileek emandako informazioarekin, azken 5 urteetan izandako ezbeharrak jasotzen dituenarekin, Erantzukizun Zibilaren eta Aseguruen Legean jasotako baldintzetan.

Jakinarazten dizugu autoaren aseguruaren zure kontratuko datuak eta hari lotutako azken bost urteetako ezbeharrak, halakorik balego, aipatutako fitxategi komun horri lagako zaizkiola.

- (b) Autoaren aseguruaren erabateko galeren, suteen eta lapurreten fitxategi komun. Aipatutako fitxategia osatzen da entitate aseguratzaileek emandako informazioarekin, eta haren helburua da iruzurra prebenitzea eta detektatzea, dela entitate aseguratzaileari ohartaraziz poliza kontratatzeke unean, dela deklaraturako ezbeharretan jada egindako iruzurra detektatuz.

Fitxategi horrek jasotzen du zure aseguru kontratuan dagoen informazio guztia, zure datu pertsonalak, deklaraturako ezbeharrak eta jasotako likidazioak barne.

Horrez gain, lapurretagatik desagertutako ibilgailuak topatu ahal izateko, informaziorako sarbidea izango dute CENTRO ZARAGOZAK eta Estatuko Segurtasun Indarrek eta Kidegoek. Horren helburu bakarra izango da topatutako ibilgailuei dagozkien egiaztapenak egitea, entitate aseguratzaileari jakinarazteko jabearen esku utzi dela ibilgailua edo, ibilgailuaren kalte ordainak eman badira, entitate aseguratzailearen beraren esku.

Jakinarazten dizugu erabateko galera ekarri duen ezbehar bat izan baduzu, kalteengatik, suteagatik edo lapurretagatik, zure autoaren aseguru kontratuaren datuak eta ezbeharrekin lotutako informazioa aipatutako fitxategi komunari lagako zaizkiola.

Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezabatzeko eta horien aurka egiteko eskubideak erabili nahi badituzu, hona idatzi dezakezu: TIREA, Las Rozasetik El Escorialerako errepidea, 0,3 kilometroa, Las Rozas, 28231, MADRIL. Zeure burua identifikatu beharko duzu NANaren, pasaportearen edo egoiliar txartelaren bitartez, edo zeure burua identifikatzeko baliozko beste dokumentu baten bidez, eta, ordezkari baten bidez jarduten ari bazara, interesdunaren berariazko baimena aurkeztu beharko duzu. Horren guztiaren helburua da eragozteko eskubide horiek interesduna ez den norbaitek erabiltzea. Bizitokia bada nortasun agirian jasotakoa ez den beste bat, dokumentuak eta gutunak bidaliko dira nortasun agirian agertzen den helbidera, salbu eta ez bada beste bat adierazten eta behar bezala frogatzen. Izan ere, eskubide pertsonal-pertsonala denez, babes neurri handienak hartu behar dira, bermatzeko eskubidea erabiltzen duena interesduna bera dela, eta haren datuen pribatasuna eta konfidentziasuna bermatzeko.

4. Zure datuen nazioarteko transferentziak

Zure datu pertsonalak transferitu ahal izango zaizkie aurreko apartatuan zerrendatutako hartzaile kategoriei, eta horietako batzuk Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan egon daitezke, baita Europar Batasuneko datuen babesaren maila baliokidea ez duten herrialdeetan ere. Dena den, kasu horietan, datu horiek tratatuko dira Europako eta Espainiako legea zorrotz betez eta, gainera, honako berme hauek aplikatuko dira:

Hartzaile kategoria	Herrialdea	Bermea
Entitate berraseguratzaileak	Suitza	Egokitze erabakia
Entitate berraseguratzaileak	Estatu Batuak	Batzordeak onartutako klausula tipoak / Arau Korporatibo Lotesleak (BCR) / Pribatutasun Ezkutua
Liberty Mutual Insurance Company, prozesu informatikoak eta aplikazioak zentralizatzeko	Estatu Batuak	Batzordeak onartutako klausula tipoak
Sarearen eta informazioaren segurtasun zerbitzuak eta bezeroekiko eta bitartekariakiko harreman zerbitzuak emateko tratamenduaren arduradunak	Estatu Batuak	Batzordeak onartutako klausula tipoak
Liberty Seguros hodeiko konputazio zerbitzuak emateko tratamenduaren arduradunak	Estatu Batuak	Datuen babeserako autoritateek egokitzen jotako kontratuak/garantiak / Pribatutasun Ezkutua
Organismo publikoak eta pribatuak, merkataritza transakzioen ikerketak egiteko, oinarri legitimatzaile gisa hartuta ustelkeriaren eta iruzurraren aurkako borrokaren inguruko araudiak eta zehapen ekonomiko eta komertzialak betetzea	Estatu Batuak	Batzordeak onartutako klausula tipoak

Aipatutako bermeen kopia bat nahi baduzu, Datuen Babesaren Ordezkariri idatzi diezaiokezu, helbide honetan: dpo@libertyseguros.es

III. KUTXABANK, SA ETA KUTXABANK ASEGURADORA, COMPAÑIA DE SEGUROS Y REASEGUROS, SAU**1. Zure datu pertsonalak tratatzearen helburuak eta legitimazioa**

Kutxabankek eta Kutxabank Aseguradorak zure datu pertsonalak tratatuko dituzte bezeroei bermatzeko kalitate goreneko zerbitzu bat, beren interesen babes handiagoa eta aseguru aurrekontratuko eta/edo kontratuko harremanetik eratorri daitekeen edozein gorabeheraren jarraipen hobe. Horren oinarri legitimatzailea da interes zilegia, bezero horiek itxaropena duten heinean beren datuak helburu horrekin erabiliko direla.

Horrez gain, zure datuak 400 egunez gorde ahal izango dira azkenean kontratu harremana formalizatzen ez bada. Tratamendu horren oinarri legitimatzailea da etorkizunean zure balizko kontsultak edo eskaerak kudeatzeko edo betetzeko interes zilegia.

Nolanahi ere, aurretik deskribatutako baldintzetan erabili ahal izango duzu adierazitako tratamenduari dagokionez aurka egiteko eskubidea:

2. Datu pertsonalen kategoriak eta jatorria

Tratatuko diren datu pertsonalak izango dira aseguru aurrekontratuaren eta/edo kontratuaren esparruan zuri buruz jasotzen ditugunak. Zuk emandako informazioari dagokionez, tratatu ditzakegu aseguru kontratua kontratatu aurretik emandako datuak (aurrekontua, aseguru eskatzea), polizan daudenak eta/edo kontratuko harremanak iraun bitartean sortutakoak.

3. Zure datu pertsonalen hartzaileak

Zure datuetarako sarbidea eduki ahal izango dute zerbitzu profesionaletarako, datuak gordetzeko eta prozesatzeko zerbitzuetarako eta sarearen eta informazioaren segurtasun zerbitzuak emateko tratamenduaren arduradunek.

Kutxabankek eta Kutxabank Aseguradorak ez du zure datuen nazioarteko transferentziarik egingo eta ez dute zure daturik lagako.